

# Negarraren bidea

Egilea: Pako Aristi. Argitaletxea: Erein.

2023ko apirilak 30



Idazle gisa ezagunagoa bada ere, ikasketaz kazetaria da Pako Aristi. Aurretik ere argitaratu izan ditu kazetaritzarekin lotutako testuak, baita hedabide ugarirekin kolaboratu ere. *Irunberri 1990: Arroilaren negarra* lana da alor horretan egin duen azken ekarpena. Liburuak 1990eko uztailaren 25ean Irunberriko arroilan gertatutakoa argitzeko asmoa du. Ikerketa zorrotz baten bitartez, autoreak kasu osoa berreraikitzen du. Susana Arregi eta Jon Lizarralde ETako militantek hilik suertatu ziren egun hartan. Bertsiio ofiziala izan zen beren buruaz beste egin zutela, baina, hain zuzen, hori gezurtatzera eta instrukzioan egon ziren kontraesan eta itzalak seinalatzer a dator liburu a. Gertaerek oraindik ere oroitzapen latzak sor ditzaketen arren, kontrazalean esaten den gisan, ia-ia eleberri moduan irakur daiteke, Aristiren prosa gihartsu eta argia lagun.

1990eko uztailaren 25ean, 12:00 aldera, Jose Luis Hervas Guardia Zibileko sarjentuak topo egin zuen, ausaz, Irunberriko arroilan ekintza baterako informazioa biltzen zebiltzan ETako hiru militanterekin: Susana Arregi, Jon Lizarralde eta German Rubenach. Poliziak identifikatzeko eskatu eta poltsak miatu zizkienean, tiro egin zioten besteek, bertan akabatuz. Une horretantxe hasi zen ia 24 orduko polizia-operazioa. Arratsalde horretan bertan Rubenach aurkitu zuten, bizirik, tiro bat buruan zuela. Biharamunean, Lizarralde eta Arregi, hilik. 1995eko epai baten arabera, ez zen frogatua izan militantek suizidatu zirenik. Horixe izan zen, ordea, gobernuak eta hedabide hegemonikoez lehen momentutik sustatu eta eikatu nahi izan zuten bertsiota. Ez zen beste ikerketarik zabaldu. Aristik kasu osoaren kronika egiten du, gertaerei ez ezik, begirada protagonistei ere zuzenduz eta biktimen zein senideen erretratu humanoak eskainiz.

Euskal Herriko historia garaikidean duen garrantziaz gain, liburu a bera obra moduan da erakargarria. Ez-fikziozko literaturatzat har daiteke, besteak beste, eta distantziak distantzia, Truman Capoteren *Odol hotzean* dakar gogora. Aristiren idazkera, gorago esan bezala, kazetaritza moldeak eskatzen duen bezain garbia da, aratza. Literariotasunerako joerarik badu, dena dela, metafora zantzurik suma daiteke han-hemenka, baliabide literario ez gutxi. Antzeman daiteke, orobat, irakurlearengan jakin-mina sortzea helburu duen narrazioa harilkatzeko modu bat, hura interpelatu guran dabilena. Arroilaren deskribapenetan, kasuko aktoreak aurkezteko eran, gertaeraren girotzea egiterakoan, balizko eszenak imajinatzerakoan... nabari zaio idazlearen eskua autoreari. Atalen antolaketak ere indartzen du eleberria irakurtzen ari garelako sentipena, atal laburrak kapitulu en barruan txertatuta, bakoitza izenburu iradokitzaile batekin. Teknika literarioak, kasuaren kronika lausotu ordez, berau argitu egiten du, bere inpaktua handitu. Justiziaren faltan, izan ere, *Azken alegatua* atalean aldarrikatzen den egiaa hurbiltzeko bide emankorra eman dezakete narrazioek. Negarraren bideari jarraitu, istorioen xerka.

Sareko BERRIAzalea:

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komuniteari esker, publizitateak eta erakunde en laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaia en berri ematen segitu.

Izan BERRIAlaguna

## Gaiak

Pako Aristi   Erein   EH gatazka - Polizia operazioak   Literatura euskaraz

Euskal Herriko gatazka   Literatura   Arteak eta kultura   Euskal Herriko politika

Komunikazioa   Euskal Herria

## Albiste gehiago




### Musikaren tempoak koloretan

UXUE REY GORRAIZ

Fernando Pagola arkitekto eta artistaren 'Kontzertu hirukoitza' erakusketa ikusgai dago Nafarroako Unibertsitateko Museoa n, abuztuaren 27ra arte. Iru dia ren eraikuntzari buruzko gogoeta egiten du


### Askatasuna eta kontrola

ISMAEL MANTEROLA



### Atmosferen transkodetzea

JONE RUBIO MAZKIARAN



### Gernikan batu dira

AGUS PEREZ

## Astekaria

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoan.

Pribatutasun politika eta [Lege informazioa](#) irakurri ditut eta onartzen ditut

idatzi zure posta elektronikoa

Harpidetu

Iru zkinak kargatzen...



Berria.eus - Euskal Editorea SM  
Telefona: 943-30 40 30  
Faxa: 943-59 01 72  
Webgunea: webgunea@berria.eus  
Publizitatea: publi@bidera.eus  
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

### JARRAITU

Facebook  
 Twitter  
 Instagram  
 Youtube  
 RSS

### SAILAK

Gizartea  
Politika  
Mundua  
Ekonomia  
Iritzia  
Berria TB

Kirola  
Kultura  
Bizigiro  
Ibilkari  
Infografiak  
Argazkiak

### LEGEA

Lege Informazioa  
Pribatutasun politika  
Cookieak  
Zozketak  
Lan eskaintzak  
 Lizentzia  
Publizitatea  
Bidera zerbitzuak  
MIDAS Media